

2007ko uztailaren 10ean UDALBATZAK EGINDAKO BILKURA OHIZKOAREN AKTA.

5 Zk.

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 17,30tan, Udalbatzarra bildu da.

Alkate Lehendakari jaunak zuzentzen du sesioa eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

BATZAR BURUA: IGOR ITURAIN IBARGUREN

ZINEGOTZIAK :

- 1.-MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAOLA
- 2.- ANDER ARRILLAGA ALBENIZ
- 3.- MARI KARMEN EGURZA AGIRRE
- 4.- ANTXON GOMEZ LORENTE
- 5.- NAIARA ESNAL HUEGUN
- 6.- JOXEMARI LIZARRALDE

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA: ITZIAR AZURTZA-SORRONDEGI

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- 2006ko urriaren 10ean behin-behingo onartutako Hirigintza Arau Subsidiarioen Berrikuspen agiriari Itsasertz txostenak ezarritako eskakizunak jasotzen dituen eranskin gehigarria onartu

Idazkariak aipatu du Itsasertz sailak hiru ohar egin zituela Hirigintza Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren gainean. Lehena, itsasertzaren babes eremuak definitzen dituzten lerro grafikoaren azalpena espreski jasotzea. Honen ondorioz, Gaizka Perosterena arkitektuak osatu egin du, Berrikuspenaren “fitxak” dokumentuaren bukaeran, lerro grafikoaren azalpen- zerrenda. Bigarrena, Hirigintza Ordenantzetan espreski jaso dadila Itsasertz Legeak ezarritako zenbait artikulua.

Eskakizun hau betez, Patxi de Assas abokatuak, Berrikuspenaren “ Ordenantzak” dokumentua, 6. artikulua, hain zuzen ere, osatu egin du. Hirugarrena, itsasertz babes zortasunari eragiten diotenez, “ AIU-21-Thalassa” eta “ AIU-20-Orioko Arraun Elkarteak” eremuen hirigintza antolakuntza justifikatzea eskatu zuen. Eta baldintza hau betetzeko asmoz, batetik, “ Thalassa Gestión 99 SL” enpresak dokumentazio gehigarri bat aurkeztu du, hirigintza eraikigarritasuna mantendu egiten dela adieraziz eta bolumenaren berrantolaketa soila dela fitxak aurrikusitako proposamena. Eta bestetik, fitxan aurrikusitako hirigintza eraikigarritasunaren beharra azpimarratzen duen txostena eta estrategia-plana aurkeztu ditu “OriokoArraun Elkarteak”. Bestalde, Idazkariak oroitarazi du, hirigintza ikuspegi batetik, ez dagoela Udalbatzak 2006ko urriaren 10ean behin-behingo onartu zuen Berrikuspen agirian aldaketarik. Itsasertz sailak eskatutako bi zuzenketak derrigorrezkoak direla ohartarazi du eta “ AIU-20 eta AIU-21 eremuen antolaketa bere hartan mantentzen dela. Eranskin gehigarri honek behin-behingo onartutako Berrikuspen agiria osatu egiten duela azaldu du, azkenik.

AKORDIOA: Udalbatzak, ahobatez, onartu du 2006ko urriaren 10ean behin-behingo onartutako Hirigintza Arau Subsidiarioen Berrikuspen agiriari Itsasertz txostenak ezarritako eskakizunak jasotzen dituen eranskin gehigarria.

Besterik gabe, arratsaldeko 18:00tan bukatu da bilera eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezten, idazkariak idatzi eta bertaratutakoek onartu eta izenpetu dute, Aian 2007ko urriaren 30ean.

IGOR ITURAIN IBARGURENek

MARIA JESUS ARRUABARRENak

ANDER ARRILLAGA ALBENIZEk

JOXE MARIA LIZARRALDEk

MARI KARMEN EGURZA AGIRREk

NAIARA ESNAL HUEGUNEk

ANTXON GOMEZ LORENTEk

Itziar Azurtza-Sorrondegi,

Idazkari-kontuhartzaileak.